

B

BARREN

TOKIKOM



Garia Elgoibarren

Aterpe

TABERNA

Tel.: 943 742 595 - San Roke, 5

Ondo pasa jaiak!

Egin erreserba
San Bartolome jaietarako!

20€

- Marmitakoa.
Letxuga eta
tomate entsalada
- Oilasko edo
haragi gisatua
- Postrea eta kafea

Abuztuaren 4tik
abuztuaren 17ra oporrak.

Oporretan egon arren,
erreserbak hartzen ditugu.

Erreserbak:
943 742 595

25€

Sanbartolomeetarako menu berezia!

Uztailaren 29tik abuztuaren 21era oporrak. Abuztuaren 22an zabalduko dugu!

Erreserbak: (Oporretan egon arren, erreserbak hartzen ditugu)

- Karakate jatetxea: 943 741 244
- Esti: 689 575 063
- Santos: 656 707 429

KARAKATE
jatetxea - restaurante
ELGOIBAR

Pol. Glaso, Glasope 1 - Tel.: 943 741 244
karakatejatetxea@hotmail.com

Jainkoaren Partikula Madarikatua

90. hamarkadan Leo Lederman Nobel saridunari partikula fisikari buruzko dibulgazio liburu bat idaztea otu zitzaion. Bertan Higgsen bosoiari *The Goddamn Particle* (Partikula Madarikatua) deitzen zion detektatzeko oso zaila zelako. Hala ere, liburuaren argitaratzaileak, akaso arrazoi komertzialak medio, *The Goddamn Particle* beste termino batez ordezkatzea erabaki zuen: *The God Particle* terminoaz, eta hala, Partikula Madarikatua zena Jainkoaren Partikula bihurtu zen.

Partikula arraio halakoaren existentzia 64an proposatu zuen Higgsek. Ingelesaren teoriaren arabera, espazio osoa partikula elementalekin (materiaren osagai direnekin) elkarrekiten duen eremu ikusezin batez eratua dago, eta elkarrekintza honegatik bereganatzen dute masa partikulek.

Jar dezagun analogia xume bat. Bitez 'antxoa' partikula txikia eta 'bale' partikula handia Higgsen itsaso amaigabeen igeri. Antxoa bizi mugitzen da urarekin ahulki elkarrekinez, eta ondorioz, masa txikia sortzen du beregan. Aldiz, balea, motelki, baina ur asko higituz, masa handiaz jabetzen da bere baletasunaren inguruan. Ohartu teoriaren sakontasunaz: partikula ororen masa Unibertso osoa betetzen duen eremu batek sortua da.

Sakontasunotan murgildurik, Camino apezpikuak Fisikan Jainkoaz hitz egitea Elizari ongi datorkiola baieztatu ondoren, Jainkoa Eguzkia eta izarren jatorrian izateaz gain,

maitasunaren jatorrian ere badagoela nabarmendu du. Hawking fisikari gurpildunak berriz, bere azken liburuan, Unibertsoa ezerezetik sortua dela dio eta ez dagoela Jainkorik.

Hara hor galdera potoloa Caminorentzat: Higgsen eremu jainkotiarrek Camino apezpiku-partikula (A) eta Hawking fisikari-gurpildun-partikula (B) sortzen baditu uneoro, zergatik aterako litzateke B zitzu bizian eremu jainkotiarraren mugetatik ere kanpora A ikusi bezain pronto?



Alain Ulazia

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Partikula ororen masa Unibertso osoa betetzen duen eremu batek sortua da”

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Ekaineko irabazlea: **AINARA GUILLEN**

Uztaileko saria: **BETILEEN PERMANENTE ETA TINTEA ETA PEDIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

PINTURAK
ET
KONPONKETAK

ACEBILLOI FORNARI GABRIELI

Pedro Pérez Beristain
Xibillon Kalea 2 solbe 3
943 74 35 52 - 639 76 09 19

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXKO KONPONKETAK

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantutua: eguzi, aluminio, PVC
Pisua orokorra

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 modaloa
Tel. 943 749 570

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarriko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo daki-gu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia: Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredia ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorrizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

**Eider Carton (Elhuyar) Mikel Irizar (Tokikom),
Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta
Xabier Letona (Argia), Herri Ekimeneko
Euskal Hedabideen izenean** ☺

OHARRA

Datorren ostiralean, uztailearen 20an, argitaratuko dugu oporren aurreko azken alea. Gogoratu ale horretan argitaratu beharreko informazioa eguazten eguerdirako ekarri edo bidali beharko duzuela **BARRE**neko erredakziora.



Ainara Sedano

Kaixo, Noe. Azkenaldian guztion ahotan dabil telebista pizteak atzeraka eragiten duela, hainbeste berri txar, batetik eta, bestetik, murrizketak han eta hemen... luze ari da joaten, ezta? Bestalde, eta aitortu behar dizut nik ere parte hartzen dudala horretan, azkenaldian ekonomista bihurtu gara



Noemi Otegi

Lehenengo eta behin esango nizuke ez zai-gula gaizki etorriko gutxiagorekin bizi daitekeela ikastea. Etxea dekoratzaileak apaintzen ez badu berdin-berdin bizi ahal izango garela bertan, goxo-goxo gainera! Arropa guztia markakoa ez bada ere ez da ezer gertatzen, eta haurrek ez dute daukatenaren erdia ere behar! Gutxiagorekin bizi gaitzke, baina sobera dauden eta gainera traba ikaragarria egiten diguten gauzez bete dugu gure bizitza, Ainara! Krisiak baditu alde onak, eta honek izan behar du hoberenetako bat. Utikan tontakeriak, eta heldu benetan garrantzia duenari.

“Ez zaigu gaizki etorriko gutxiagorekin bizi daitekeela ikastea”

Laguntzei buruz, nola azaldu ez gaudela inondik ere dirua banatzeko garaian, apustu sendoak egiteko momentuan baizik. Laguntzak etorkizunera begira eman behar direlakoan nago, ematen denak fruituak eman behar ditu lehenago edo beranduago, helburu batekin eman behar dira laguntzak, eta helburua ezin da izan momentuko partxe bat jartzea, baizik eta laguntza horren ondorioz pertsoneri, enpresei edo elkarteei bere kabuz aurrera ateratzeko bidea zabaltzea. Azkenaldian esaera zaharrekin nabilkizu, eta gaurkoan ere badatorkit bat: Ez eman arrainik behartsuari, erakutsi iezaiozu arrantzan egiten! Eskatutakoa ematen digutela ikasi dugu umetatik, eta komeni zaigu ahalik eta lasterren jakitea ezetz, guztia ezin dela lortu, eskubideez gain, betebeharrak baditugula, eta irtenbidea, egotekotan, denon artean topatu behar dugula, elkarri trabak jarri ordez, bideak elkarrekin zabalduz lortu ahal izango ditugula.

“Orain arte kontrol gutxi izan da gauza askotan, eta diruak ihes egin du”

Gertutik tokatu zait kasuren batean norbaiti lana eskaini eta laguntzen bitartez diru gehiago lortzen duenez, lanari ezetza ematea, lana egitea baino nahiago duelako lanik ez egin eta dirulaguntza jasotzea. Normala! Nik ere hala egingo nuke-eta! Baina ez al zaizu iruditzen laguntzen truke ere zerbait eskatu beharko litzaikeela? Lan sozialak, aiton-amonak zaintzea, mendekotasuna dutenei laguntzea, lorategiak zaintzea... Niri mila lan datozkit burura ezaguera handirik gabe eta borondate pixkatekin egin daitezkeenak, eta apustu egingo nuke laguntzen truke esfortzu bat eskatuko balitz askok nahiago luketela beste lan bat topatu. Zer deritzozu zuk?

I. URTEURRENA

JAVIER UNAMUNZAGA UNAMUNZAGA

2011ko uztailaren 11n hil zen.

“Orduan hasten bainaiz ezkutukoa, nire baitan pizten diren bazter miresgarriak, ikusten”

Beti gure bihotzean. Ilobak



Leire Garate

ORIO TALDEKO ARRAUNLARIA

“Arraunak
badauka
beste
kirolek
ez duten
zerbait”

Lehorrekoa izatea ez du oztopo izan Leire Garatek (Elgoibar, 1988) arraunnean hasteko. Ondarrun eman zituen aurreneko pausoak, bateletan, eta gaur egun, Orion dihardu. Euskotren ligan sartzea zuten aurtengo helburu nagusia, baina helburua lortzetik koska batera gelditu dira, eta, orain, Kontxara begira jarriak daude. Orion bandera bat astintzea zer den sentitu du, baina horren aldean Kontxan sartzea “mundiala” litzatekeela esan du. Burugogorra dela aitortu du, eta dena emateko prest dago.



“Kontxakoa parranda on bat botatzeko aitzakia baino ez zen orain arte niretzat”

Noiz eta nola hasi zinen arraunean?

Mutil lagunak Ondarruko taldean dihardu arraunean, eta haren bitartez hasi nintzen ni. Iaz, estropada askotara joan nintzen ikusle gisa, eta azkenerako gustua hartu nion. Hala, probatzea erabaki nuen, eta egia esan, asko gustatu zitzaidan. Arraunak olatua jotzen duenean ateratzen duen zarata barru-barruraino iritsi zitzaidan. Hunkigarria da, eta aldi berean, beldurra ere ematen du batzuetan. Olatu handiak izan direnetan, gerrikoa eta dena lotu behar izan dut, beldurraren beldurrez. Itsaso zakarra dagoenean, esaterako, Orioko erroira sartzeko puntu horretan sekulako zurrunbiloak sortzen dira, eta estuasunen bat ere izan dugu egunen batean, baina besterik ez, zorionez.

Eta zelan animatu zinen pausoa ematera?

Ondarruko entrenatzaileak bultzatu ninduen. Probatzeko esan zidan, eta gustura nabilela ikusiz gero, jarraitzeko. Bateletan hasi nintzen, eta gero Orioko taldean sartzeko aukera iritsi zitzaigun. Orion jendea behar zuten nesken taldea osatzeko, eta Ondarrura ere iritsi zen gonbita. Guretik bi neskak eman genuen izena. Gabon bueltan hasi nintzen Orion, eta egia esan oso pozik nago.

Zein postutan egiten duzu arraunean?

Istriborrean, seigarren postuan. Popatik brankara begiratuta, hau da patroia jartzen den lekutik kontatzen hasita, seigarrena naiz, ontziaren eskuinaldean. Arinenak jartzen gara istriborrean, indar gutxien dauka-gunak. Indar gehien dutenak ontziaren erdialdean jartzen dira beti.

Kirol bat aukeratzan hasita ustez gogorrenetako bat dena aukeratu duzu. Ez zara makala!

Kirol asko probatu ditut dagoneko. Eskubaloian eta futbolearen ere ibilita nago, eta bai, arrauna, gogorragoa da. Egunero entrenatzen gara, eta batzuetan, gehiegi ere badela iruditzen zait. Baina, horrenbeste gustatzen zaigu, merezi duela egunero entrenatzeak, emaitza on bat lortzeko.

Zelan antolatzen duzu eguna?

Lan egiten dut, eta iluntzean, lanetik irten ostean, Oriora joaten naiz egunero, entrenatzera. Etxeratu orduko izaten dira 23:00ak-edo. Entrenamenduak ere gogorrak izaten dira, ez pentsa. Indarra landu behar denean, bakarkaka jarduten dugu, baina bestela taldean entrenatzen gara, dela gimnasioan edo itsasoan. Estropadari edo geure helburuei begirako entrenamenduak izaten dira.

Zein da zuen helburua?

Gure helburua Euskotren ligan sartzea zen, baina ez dugu lortu, eta orain Kontxa daukagu begiz jota. Euskotren ligarako lau talde bakarrik sailkatzen ziren, eta bosgarren gelditu gara gu, pauso batera. Getaria-Tolosak iaz liga irabazi zuenez ziurtatua zeukan lekua, eta San Juan, Zumaia eta galizarrak dira sailkatu diren beste hirurak. Egia esan, pena izan da, baina...

Arrauna bizi dute Orion. Herri oso bat gainean sentitzea zer da presio edo motibazio iturri?

Orion hasi nintzenean ez nintzen horretaz jabetzen; niretzako Orioko talde bat zen besterik gabe, baina, bai, mundu horretan sartzen zarene-

an jabetzen zara Orion beste modu batera bizi dutela arrauna. Herriak berak dena ematen du, arraunerako bizi dira, eta sentimendu hori igartzen da, bai. Guk ere arnasten dugu hori. Eta Oriotik kanpora ere, arrauna maite duten askok beste balio bat aitortzen diote Oriori. Ondarruko entrenatzailearen semea, esaterako, Zaragozan bizi da eta Oriokoa da. Klubeko taldeak aurkezteko egin zuten ekitaldia bera ere oso hunkigarria izan zen, Orion. Festa handi bat izan zen. Banan-banan aurkeztu gintuzten Orioko hiru taldeetako arraunlariak. Hunkigarria izan zen.

Kontxa daukazue begiz jota. Zer litzateke zuretzako Kontxan arraun egitea?

Orain jokatu dugun beste estropada batean lehenengo lau talderen artean sartu behar gara, Kontxarako sailkatzeko. Mundiala litzateke hori lortzea. Egia esan ez dakit zer izango litzatekeen, inoiz ez dudalako arrauna orain bizi dudan moduan bizi, baina sekulakoa dela esaten dute gertutik bizi izan dutenek. Kontxako estropada parranda on bat botatzeko aitzakia baino ez zen orain arte niretzako.

Zein da une honetan zuen aurkari zuzena?

Zumaia. Uste genuen Zumaia gure antzera ibili behar zela, baina orain bat-batean sekulako aurrerapausoa eman dute, eta dena irabazten dute.

Zeintzuk dira arraunerako zure dohainak?

Erresistentzia, beharbada. Indar askorik ez daukat, baina burugogorra naiz oso, eta hori oso lagungarria da kirolean.

Zer egiten zaizu gogorrena?

Egunero entrenatu beharra. Irailean hasi eta lehenengo hilabeteak gimnasioan pasatzen ditugu, eta orain, berriz, itsasoan gabiltza, edo erriotan, itsaso zakarra dagoenean.

Noiz egin zenuen debuta, eta non?

Bateletan egin nuen debuta, Ondarrun, Gabon ostean. Egia esan hor ez nuen ezer onik sentitu. Ez nuen irten ere egin nahi, ez nintzelako kapaz sentitzen, baina animatu ninduten eta han joan nintzen. Hilda bukatu nuen, eta momentuan joan zitzaizkidan jarraitzeko gogo denak, baina jarraitu nuen entrenatzen, eta egunetik egunera hobeto sentitzen nintenez, hemen nago. Traineruan, Getariko estropadan egin nuen debuta. Egia esan bi gauza oso ezberdinak dira. Orain igartzen da talde bat garela. Bateletan, neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ginen estropadan, baina entrenatu ez genuen elkarrekin egiten, eta hori igartzen zen gero. Orain, berriz, talde bat gara, eta hori emaitzetan ere igartzen da.

Zer esaten dizute ingurukoek?

Burutik eginda nagoela. Orain, opor sasoiaren egunero entrenatzera joan behar hori ez dute ulertzen, baina ni betetzen nau horrek.

Animatuko zenuke jendea arraunera?

Probatzen duenak jarraitu egiten du, eta beraz, badauka beste kirolek ez duten zerbait. Emakumeak behar dira, gainera, beraz, animatu daitezela.

Enpleguaren eta langileen eskubideen aldeko bizikleta martxa egin dute Deba bailaran

Eguerdiko 12:00ak aldera pasatu zen martxa atzo, Elgoibartik

Debaldea bizirik lemapean bizikleta martxa egin zuten atzo Deba bailaran, LABek antolatuta. Bailarako testuinguru sozioekonomiko “larriari” eta Madril, Gasteiz, Iruñea edo Patronalaren aldetik jasaten ari diren “eraso erraldoiari” erantzuteko eta langileen eskubideak aldarrikatzeko egin zuten martxa. Bi ibilbide egin zituzten: bata, Eskoriatzatik Eibarrera, eta bestea, Mutrikutik Eibarrera. Mendaro-ra 11:00ak aldera iritsi zen martxa, eta 11:30ean irten ziren txirrindulariak Mendaroko Ospitaletik. 12:00ak inguruan pasatu zen martxa Elgoibartik. Arratsaldean manifestazioa egin zuten Eibarren.



Uztailaren 29an egingo dute erromeria Sargoaten

Datorren uztailaren 29an Sargoateko Erromeria ospatuko dute, Elgoibarko Udalak, Debemen Elkarteak, Elgoibarko Izarrak eta Sallobente elkarteak antolatuta. 11:00etan meza izango da, eta ondoren, salda eta txorizoa dastatzeko aukera egongo da. Meabe eta Ziarda bertsolariak eta Xabier eta Ekain trikitilariak girotuko dute eguna, eta 12:00etan motozerra erakustaldia egingo du Jose Mari Esnaolak.

Tuning kontzentrazioa egin zuten zapatuan Altzolan



Zubibai elkarteak antolatuta tuning kontzentrazioa egin zuten zapatuan Altzolan, eta denetarik autoak ikusteko aukera izan zuten hara gerturatu zirenek. 30 auto inguru batu ziren guztira. Musika, argi-jokoak eta bestelako jolasak antolatu zituzten.

Burdinolen ibilbidea antolatu dute domekarako

Burdinolen ibilbidea antolatu dute domekarako, Debegesak abiatutako Arbasoen Deia egitasmoaren barruan. Debabarreneko industria eta makina erremintaren kultura ezagutarazi nahi dute, eta Debako Debanatura elkarteak gida batek emango ditu azalpenak. Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimoi bailarara abiatuko dira bisitariak eta han ibilbide labur eta erraza egingo dute burdinola, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituz. Hain zuzen, historikoki eta etnografikoki Debabarrenean bailara honek duen garrantziaren adierazle dira elementu hauek. Bailara hau ezagutu ostean, Mendarotik Elgoibarre-trenez abiatuko dira, Makina Erremintaren Museoa ezagutzeko. 10:00etarako jarri dute irteera ordua, Mendaroko tren geltokian. Interesatuak 943 191 172 edo 695 783 656 telefonoetan eman dezakete izena.

Izena **Jon Etxabe**



Euskal Herria-Bildu alderdiaren Gobernu Taldeko kide izendatu dute Jon Etxabe, eta bera izango da kanpo harremanetarako arduraduna. Etxabe Zumaian jaio zen orain dela 53 urte, baina Elgoibarren bizi da. Zuzenbidean lizentziatua da, eta lanbidez, abokatua. Horrez gain, Europako eta nazioarteko gaietan aditua da. 2003tik aurrera, UZEIko (Terminologia eta Lexikografia Zentroa) lehendakaria da.

Zenbakia **19.209**

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak 19.209,90 kilogramo janari banatu zituen iaz Elgoibarren, eta 130 familiaren artean banatu zituzten elikagaiak. Aurtengo kanpaina ere martxan da dagoeneko, eta Nagusilan eta Santa Klarako klaratarrek bideratuko dute kanpaina.

Sanbartolomeetako Jubilatuen Eguneko bazkarirako izenematea zabalik

Abuztuaren 26an izango da aurtengo San Bartolome jaietako Jubilatuen Eguna, eta dagoeneko zabalik dago bazkarirako izena emateko epea. Olaizaga kiroldegian egingo dute bazkaria, eta aurtengo prezioa zazpi eurokoa izango da. Intersatuek jubilatuen egoitzan eman dezakete izena.

Zahartzoari omenaldia egingo diote Mendaron

Zahartzoari omenaldia egingo diote Mendaron, uztailaren 29an. Aizpe elkarteak egingo dute bazkaria, 14:00etan. Bazkari horretan parte hartu nahi dutenek uztailaren 20rako eman beharko dute izena Aizpen bertan, Lagun Betikoak egoitzan, Kutxan edo Roteta dendan.

Irudia **Otegiaren aldeko argazkia**



Arg.: Aitor

Uztailaren 6an izan zen Arnaldo Otegiaren urtebetetze eguna, eta horren harira, Arnaldo askatu, politika askatu plataformak taldeko argazkia atera zuen Kalegoen plazan.



San Frantzisko kalea itxita egoten da arratsalde: "Pedro Migel Urruzuno kaleko obrak direla-eta, San Frantzisko kaletik sartu behar izaten dira autoak, baina arratsalde itxita egoten da kalea. 15:00etan ixten dituzte Malako piboteak, eta ezin izaten da San Frantzisko kalera sartu. Hori dela eta, Aita Agirre plazan aparkatzea ezinezkoa da arratsalde. Eskertuko genuke obrak iraun artean, San Frantzisko kalerako sarrera egun osoan zabalik egotea".



Jende askok Txankakua zubian aparkatzen du autoa: "Herritar askok Txankakua zubian aparkatzen du, eta askotan ez da egoten pasatzeko lekurik. Pedro Migel Urruzuno kalea itxita dagoenetik, Txankakua zubitik irteten behar izaten dugu errepidera, eta zubian aparkatzen duten autoek traba handia egiten dute. Beste zonalde batzuetan isunak jartzen dituzte, baina zubiko autoek ez dute isunik edukitzen. Eskertuko genuke Txankakua zubia libre uztea".

Mintxetako aldageletan ur beroa falta da: "Mintxetako aire libreko igerilekuak zabaldu zituztenetik, futbol zelaiko aldageletan ur beroa falta da. Arduradunek esan digute umeak ur beroarekin jolasean ibiltzen direlako gertatzen dela, denbora luzez egoten direlako dutxan eta ur beroaren depositoa amaitu egiten dela. Elgoibarrek aire libreko igerilekuak izan behar dituela iruditzen zaigu, baina ez da bidezkoa beste zerbitzuak kaltetzea". BARRÉN astekaria Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariarekin harremanetan jarri da, eta haren esanetan, bizpahiru egunetan egon zen arazoa dutxetan, mutilen aldageletan ur beroa gehiegi erabili zutelako. Hori dela eta, aire libreko igerilekuetako mutilen aldageletan ur beroa kendu egin dute, dutxen erabilera okerragatik. Hala ere, kexa jarri duen erabiltzailearen esanetan, neurri hori ez da nahikoa izan, eta oraindik ere eguneko azken orduan gimnasioko adageletan ur hotza egoten dela gaineratu du. Era berean, konponbide bat aurkitzeko eskatu dio Kirol Patronatuari.



Haur Eskola aurten uzten duten umeen gurasoek eskerrak eman nahi dizkiote hango hezitzaile taldeari: "Mila esker, batetik, ikasturte bukaerako festarengatik eta Marikutz-era egindako txangoarengatik; eta bestetik, bi urte hauetan gure umeekin egindako lan politagaitik. Datorren ikasturtean umeek igarriko dute zuen falta, eta gurasoek ere bai. Eskerrik asko!".

Txalo bero bat Atxutxia- maika aisialdi taldeari, San Fermin txiki antolatzeagatik: "Zuri-gorri jantzi ziren kaleak astelehenean, eta umeek ondo baino hobeto pasatu zuten San Fermin txiki ekitaldian. Giro polita jarri zuten Atxutxiamaika-ko hezitzaileek, eta ume zein gurasoek umore onean pasatu genuen goiza. Jarraitu horrela, lan polita egiten duzue-eta!".



Zuon kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com / 943-741 626

Sasoi bateko irudia Elgoibarren

Garia erein dute Sallobente-Ermuaren auzoko Ibarrenea baserrian



Maria Luisa Intxausti eta Julian Aranbarri, Ibarrenea baserriko etxe-jabeak, etxe aurrean ereindako gari sailean.

Garai batean gurean ohikoa zena albiste da gaur. Garia erein dute Sallobente-Ermuaren auzoan, Ibarrenea baserrian. Azaro amaiera aldera erein zuten etxeko ganaduari jaten emateko asmoz, baina orain, uzta jasotzeko sasoi ailegatu denean, gari hori jo eta irina egiteko aukera aztertzen dihardute, okindegia ere badute-eta [Ibarrenea okindegia]. Ikusmin handia sortu dute herrian, eta asko dira gari saila ikustera gerturatu zaizkienak. “Hemen sekula garia ikusi ga-beak ere etorri dira”, azaldu dute.

60ko hamarkadara arte, gure inguruko baserri gehienetan ereiten zuten garia, eta gaur pinadiak direnak urre koloreko lur sailak ziren lehen. Garia erein, bildu eta jo ondoren, alea eta lastoa bereizi eta errortara eramaten zuten baserritarrek, alea ehoz irina lortzeko. Nahikoa lan izaten zuten hormatxoriak uxatu eta eskuz uzta guztia jasotzeko. Baina joan dira sasoi haiek, galdu da garia Kantauri ipar isurialdean, eta hormatxori edo txolarreek ere leku berriak topatu behar izan dituzte. Ibarrenea baserrikoek, baina, lehengora egin dute.

Igitaia eskuan dutela garia batzen topatu ditugu Maria Luisa Intxausti eta Julian Aranbarri, etxe aurreko sailean. Duela 56 urte laga zioten garia ereiteari, San Tomas egunez baserriak su hartu zuenean. Ezbehar hartan ondasun asko galdu zituzten, eta tartean, baita garia

joteko makineria ere. “Makina guztiak galdu genituen, eta laga egin genion”, azaldu du Maria Luisak. Joan zen, azaroan, baina, urteetako usadioa berreskuratu eta 600 bat metro koadroko lur saila erein zuten. Bi motatako 26 bat kilo gari erein zituzten, belarra galdu aldera. “Artoa kendu zenean, hazi zen belarra eta abarra, eta ‘garia ereingo dugu’ pentsatu genuen, haretzek galtzen du belarra-eta. Garia erein, eta gero ebagi egingo dugu, burua irteten hasi orduko pentsatu genuen”, azaldu du Maria Luisak.

Gari-burua hazi zenean, hala ere, irtiz aldatu zuten. “Polita zela, eta urte askoan ez dela hemen halakorik ikusi, eta batzea erabaki genuen”, zehaztu dute Ibarrenea etxeko andra-gizonek. Orain, zazpi hilabete geroago, dena batu, jo, lastoa apartatu eta irina egin asmo dute, baina uste baino gehiago kostatzen ari zaie. Izan ere, zailtasunak dituzte garia irin bihurtzeko beharrezko duten tresneria topatzeko.

Orain artean egin dituzten saiakera guztiak antzuak izan dira, baina hala ere, bila jarraitzen dute. Garai bateko gari ogiaren zapore eta usaina barru-barruiraino sartuta dituzte, eta ez dute ahalegina egin ga-be gelditzeko asmorik. “Etxe guztian zabaltzen zen gari-ogiaren usaina. Ogi goxoa zen benetan”, oroitu du Maria Luisa Intxaustik.

Argazki gehiago eta bideoa: www.elgoIBARREN.net

ELENA ALONSO

ELGOIBARKO UDALEKO BERDINTASUN
ETA ENPLEGURAKO TEKNIKARIA

“Industria sektoreak aterako gaitu krisialditik”



Langabe kopurua gutxitu eta herrian jarduera ekonomiko berriak sustatzeko, hiru urterako Enplegu Plana jarri du martxan Elgoibarko Udalak, hainbat enpresa, ikastetxe eta beste eragile batzuekin batera. Era berean, lan bila ari direnak prestatu, autoenplegua eta ekintzailetasuna sustatu, enplegu aukera berriak detektatu eta aprobetxatu eta lana aurkitzeko zailtasunak dituztenei laguntzea nahi dute. Elgoibarko Udalak berdintasuna eta enplegua uztartzeko langile bat kontratatu zuen martxoan, Elena Alonso, eta harekin hitz egin du BARRENEK, egungo lan egoerari buruz.

Badira hilabete batzuk Udalak Enplegu Plana martxan jarri zuela. Zein da enplegu plan horren helburua?

Helburu nagusiak bi dira: jarduera ekonomiko sustatzea eta langabezia murriztea, eta horretarako, lan ildo desberdinak garatu behar dira. Lan bila dabilen pertsonen enplegarritasuna hobetu behar da, jarduera eta enplegu aukera berriak detektatu eta aprobetxatu behar dira, enplegua sortzen duten jarduerak sustatu eta autoenplegua eta ekintzailetasuna indartu behar dira. Elgoibarrek jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta langabezia murrizteko dituen proposamenak landu behar ditu, eskualdeko enplegu planaren barnean integratu ahal izateko. Azken batean, Elgoibar Debabarreneko kidea da, pisu

ekonomiko handia du, eta industria arloan oso garrantzitsua da.

Zein paper jokatu du Udalak Enplegu Planaren barruan?

Udalaren papera ez da enplegua sortzea, baizik eta enpresa berriak sortzen ari direnei euren lehiakortasuna hobetzeko eta euren proiektuak garatzeko baldintzak ezartzen laguntzea. Tokiko eragileen parte-hartzea eta elkarlana dinamizatu behar ditu Udalak: Lanbide, Debegesa, prestakuntza zentroak, enpresak, gizarte eragileak... Era berean, enpresen eta langabeen premiak aztertu eta politika orokorrak Elgoibarrera egokitu behar ditu.

Zeintzuk dira Enplegu Planaren barruan burutuko dituzuen zereginak?

Hiru zeregin ditugu Enplegu Planaren barruan: lehenik diagnostia egin; sozioekonomikoa, enpresa eta lan merkatuarena. Bestetik, enplegarritasuna hobetzeko ekintzak ditugu; hau da, eskaintzaren diagnostia egin eta ekintzak diseinatzea. Hirugarren zeregina enpresen lehiakortasuna sustatzea da.

Une honetan zein puntutan dago Enplegu Plana?

Langabetuen diagnostia eginda daukagu eta enpresena amaitzean dago. Enpresen lehiakortasuna sustatzeko ekintzen barruan, bestalde, Kooperari proiektua abian da [enpresa txikien lehiakortasuna sustatzeko elkarlan-taldea]. Orain, Eskualdeko Enplegu planean integratu behar dugu herrikoa, proiektuak aurrera ateratzeko.

Zein da Elgoibarko langabezia tasa?

Maiatzeko datuen arabera, %12,22 da Elgoibarko langabezia tasa. Gizonezkoetan %10,78koa da, eta emakumezkoetan %14,03koa. Langabezian dauden pertsona gehienak zerbitzuen sektorekoak dira (erdiak baino gehiago).

Zein da Elgoibarko langabetuaren profila?

Langabezian daudenen %60k baino gehiagok ez dute prestakuntza kualifikaturik, eta horrek kezkatzen gaitu gehien. Gizonen kasuan kopuru hori handiagoa da, gainera. Emakumeak, oro har, zerbitzu sektoretik datoz, eta industrian eta zerbitzuetan lan egin-gokute. Langabe dauden emakume gehienek 30 eta 40 urte artean dituzte; lanerako adinik onenean daude, alegia. Gizon langabea, aldiz, gazteagoa da, kualifikazio gabea eta industrian lan egin nahi du.

Euskal Herriko datuekin alderatuta, zein egoeratan dago Elgoibar?

Gipuzkoa eta Erkidegoarekin konparatuta (%14,84), hobeto dago, bi puntu eta erdi baino gehiago azpitik, hain zuzen ere. Honen arrazoiak Elgoibarrek industria handia duela. Industria da egoera hobean mantentzen gaituena.

“Langabezian daudenen %60k baino gehiagok ez dute prestakuntza kualifikaturik”

Enplegu Planari esker lortu al da langabe kopurua murriztea?

Langabezia murrizteko bi alderdi landu behar dira: enpresak eta pertsonak. Enpresek enplegua sortu behar dute, eta horretarako, lehiakortasunerako baldintzak hobetu behar dituzte. Hau da, berrikuntza garatu, internazioalizatu, prozesuak hobetu, produktibitatea areagotu, pertsonak ondo formatuta eta motibatuta eduki... Beste alderdian pertsonak ditugu. Gure inguruan langabezian dauden pertsonak prestakuntza gabeak edo enpre-

sek eskatzen dituzten profilik ez dutenak dira gehienak. Enplegu Planaren helburu nagusienetarikoa pertsonak orientatu eta, prestakuntzaren bidez, gure enpresen beharretara egokitzea da. Prestakuntza da giltzarria.

Zein prestakuntza dute Elgoibarko langabetuek?

Langabetuen %60k baino gehiagok ez dute prestakuntzarik. Emakumeak gizonezkoak baino hobeto daude prestakuntzari dagokionean. Hala ere, prestakuntza hori zerbitzuen sektoreetara bideratuta dago, eta ez daude enpresen beharretara egokituta. Unibertsitate ikasketak edo Lanbide Heziketa dutenen artean, industriara bideratutako kualifikazio teknikoak dituzten pertsona asko ez ditugu aurkitzen langabezian. Oro har, langabezian dauden pertsona gehienak ez dituzte enpresen beharrak asetzen.

Ikasleak lan mundura barmartzeko ikastetxe garrantzitsuak ditugu Elgoibarren, IMH eta Meka esate baterako. Hortik etorri daiteke langabezia jaistea?

Langabezia enpresak enplegua sortzen hasten direnean jaitsiko da, eta une horretarako langabetuak enpresen beharretara egokituta egon behar dira. Horretarako, ikastetxeek oso paper garrantzitsua dute. Elgoibarko Lanbide Heziketako zentruak maila handiak dira, eta aspaldi hasi ziren ikasleak enpreseen beharretara egokitzen. Era berean, emakumeak industriara erakartzeko ahalegin handia egiten dute. Gure industriak gero eta pertsona prestatuagoak behar ditu eta maila handiko prestakuntza tekniko behar da kalitatezko lanpostua lortzeko.

IMHko alternantzia ereduak onartu dute Espainiako Kongresuan. Elgoibar bide onetik doala esan genezake?

Elgoibar ereduak prestakuntza arloan eta txandakako sistema bide egokiena da ikasleak lan mundura egokitzeko. Ikasleak arduraren hartzen du, bere akitudeak helduagoak izatea lortzen du, enpresaren benetako jardueraren eta kultura barmartzaren ditu... Abantailak baino ez du alternantziarik.

Elgoibarko ekonomia oso lotuta dago Erreminta Makinari. Sektore horrek susperraldi txiki bat izan du, baina ez al da arriskutsuegia herriaren eta bailararen ekonomia sektore jakin bati hain lotua egotea?

Alde batetik espezializazioa ona da, espazio

zehatz batean ahalmen handiko errekurtsuak lortzen direlako: giza baliabideak, teknikoak, zentro teknologikoak... Baina, egia da, estrategia honek arriskua eduki dezakeela. Horregatik, Erreminta Makinaren sektoreak aspaldi hasi zuen berrikuntza, dibersifikazio eta internazionalizazio prozesua. Lehen automozioa zen sektorerik garrantzitsuenetarikoa, baina orain sektore askorentzat egiten da lan hemengo enpresetan.

“Langabezian dauden pertsona gehienak ez dituzte enpresen beharrak asetzen”

Debabarreneko ikasleek zein ikasketa egin beharko lukete ikasketak amaitu ostean lana izateko?

Dudarik gabe, industriara zuzendutako prestakuntza teknikoak: Lanbide Heziketakoak edota Ingenieritzakoak. Eta ez bakarrik lana izateko, baizik eta baldintza oneko lana izateko. Berezi neskak animatu behar dira industriako ikasketak egitera.

Elgoibar, eta oro har, Euskal Herri guztia krisian murgilduta dago. Egoera honek nola eboluzionatuko du?

Gu konbentzita gaude industriaren alde egin dugun apustua egokia izan dela, eta datuek hala erakusten dute. Bide honetatik indarrez jarraitzen badugu krisialditi irtengo gara, eta indartuta, gainera. Industriaren sektoreak aterako gaitu krisialditi. Gure eskualdean formakuntza, ikerketa, berrikuntzaren aldeko apustuak indartu egin gaitu, eta horregatik gaude besteak baino egoera hobean. Pertsonen aldeko apustua egin behar dugu: prestakuntza eta motibazioa lantzen, partehartze prozesu berritzaileak bultzatzen, emakumeak erakartzen... Ondo prestatutako pertsona gure gizarteko baliabide garrantzitsuena da.

Skainean...

JAIOTAKOAK



Karla Jimenez Gonzalez
Ekainak 2
Peru eta Aintzane




Irati Martin Peñalba
Ekainak 1
Pedro eta Ana



Lander Garcia Melgosa
Ekainak 12
Raul eta Saray



Jon eta Javier Ansola Juanes Ekainak 8
Ruben eta Diana




Nora Gurrutxaga Iriondo
Ekainak 21
Ibai eta Iratxe



Noa Zubiaurre Osoro
Ekainak 11
Aitor eta Iratxe



Eileen Irune Fonseca Castejon Ekainak 26
Darwin eta Eileen



Cloe Malvaso Fernandez
Ekainak 25
Emilio eta Amagoia

Sarina Khalil
Ekainak 15
Khalil eta Sumaira

EZKONDUTAKOAK

• **Julen Gimeno Egia** eta **Edurne Juaristi Zabala** Ekainak 23

HILDAKOAK

Sebastian Leyaristi Garate • 85 urte • Ekainak 1
Joseba Bilbao Garate • 48 urte • Ekainak 5
Asier Ortega Fernandez • 30 urte • Ekainak 11
Luis Perez Vilanova • 87 urte • Ekainak 12
Luis Larrañaga Odria • 81 urte • Ekainak 19
Guillermo Monreal Saratxo • 77 urte • Ekainak 22
Domingo Garcia Jodar • 85 urte • Ekainak 29

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA
eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

FELISA ZUBIAURRE BILBAO



2012ko uztailaren 1ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Santanen atarian... Etxabeko Santa Isabel jaiak

Giro ezinhobean joan dira Etxabeko Santa Isabel jaiak. Domeka goizean, meza ostean, Etxabe-Xoxote-Etxabe mendi esprinta jokatu zen, eta Iñigo Larizek irabazi zuen, beheranzkoan Iñigo Lazkano mendarorari aurrea hartuta. Bigarren egin zuen Lazkanok, eta Goitzon Zulaika izan zen hirugarrena. Herri kirolak eta dantzak ere izan ziren goiz partean. Lokotx batzen, txinga eroaten eta zakua lepoan hartuta korrika jardun zuten, erreleboka, eta ondoren, sokatiran jardun ziren mendarorak berrituarren kontra. Kanpokoak nagusitu ziren, eta guztiek elkarrekin bazkaldu zuten ondoren, herri bazkarian. Jaiak bazkalostean jarraitu zuen. Umeentzako jokoak zezentxoak eta poniak izan ziren ermita ondoko plazatxoan, baina zalantzarik gabe, zezentxoan aurrean direnak eta bi egin zituzten pailazoek sortu zuten ikusmin handiena. Erromeriarekin amaitu zituzten aurtengo jaiak, lagun giro paregabean. Argazki gehiago eta bideoa: www.elgoiBarren.net



Barre algara ugari eragin zituzten pailazoek.



Sarube eta Gorixo, zakua lepoan hartuta, lehia bizian.



Iñigo Lazkano, ahalegin betean.



Herriko gazteak, ausart, zezentxoan aurrean.



Txikienek biziki gozatu zuten poniekin.



Korrikalariak makur-makur, aldatz gora, Iñigo Lariz aurretik dutela.



Mendi esprinteko lehen hiru sailkatuak, Sonia Garcia alkatearekin.

Argentinako eta Kurdistango bi talde gonbidatu dituzte aurten Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdira

Gaur zortzi, hilaren 20an, izango da jaialdia, Olaizaga kiroldegian, 22:30ean

Astebete falta da Nazioarteko Folklore Jaialdirako. Haritz dantzari taldeak antolatzen du, eta urtero mundu zabaleko dantza eta kantuak ekartzen dituzte. Aurten, Argentinako eta Kurdistango bi talde gonbidatu dituzte: Gran Ballet Argentino eta Sulaimaniyah. 22:30ean hasiko da jaialdia, kiroldegian. Sarrerak Txankakua elkarteko dendetan jarri dituzte salgai, baina egunean bertan ere salduko dituzte, kiroldegian. Hori bai, aurrez erositako sarrerek zenbaki bana izango dute, eta zozketa batean sartuko dira gero.

GRAN BALLETT (Argentina)



1963. urteaz geroztik musika eta dantza argentinarren zabalpenean burubelarri diharduen talde artistikoa da Gran Ballet Argentino. Dantzari, musikari, kantari eta aktorez osatutako taldea da, eta argentinarren izaera eta bizitzarekiko duten jarrera transmititzen saiatzen dira. Argentina alderik alde zeharkatu dute, eta mundu zabalean ere atzera-aurrera dabil-tza, euren herrialdea ezagutaraziz. Argentinako ohiturak, ezaugarri ohiko-enak, keinu eta bestelako bereizgarriak erakusten dituzte. Teknika findua dute Ballet Argentinokoen, nortasun handikoa eta kolore bizikoa. Tango-ak eta nekazaritza eremuko dantzak ekarriko dituzte Elgoibarrera.

SULAIMANIYAH (Kurdistan)

Estatu gabeko nazio handia da Kurdistan: Turkia, Iran, Irak, Siria, Libano eta Sobiet Batasuna izandako parte patzuz hartzen ditu, eta hain justu ere, lurralde zabal horretako folklorea mantendu eta indarberritzeko asmoz sortu zuten Sulaimaniyah taldea, 1998. urtean. Hango dantza, kanta eta musika zabaldu nahi dituzte, eta Kurdistango artearen nortasuna mundu zabalean erakusteko helburu horrekin, Europa eta Asiako maki-na bat herrialde bisitatu dituzte azken urteotan. Kurdistango bertako ospakizun eta jaialdi ugari parte hartu dute, eta Kurdistan iraniarrean, Herbehereetan, Polonian, Arabiar Emirerri Batuetan eta Kroazian jaialdiak eskaini dituzte.



HARITZ EUSKAL DANTZARI TALDEA (Elgoibar)



1973. urtean sortu zuten Haritz Euskal Dantzari Taldea, eta hogeita bost urteko ibilbideari jarraituz, Euskal Herri zabaleko folklorea elgoibartarrei hurbilazteko ahalegina egingo dute Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdian. Aurten, Nafarroako eta Bizkaiko dantzak taularatuko dituzte.

Haritz dantza taldetik jakinarazi dutenez, Lizarrako larrain-dantzarekin ekingo diote lehenengo zatian (Iruñeko dultzaineroak izango dituzte lagun). Bigarren zatian, Bizkaiko eskualde ezberdineta-ko dantzak eskainiko dituzte: Xemeingo ezpata-dantza, Lanestosa-ko arku-dantza, Durangaldeko erregelak, ezpata joko nagusia, makil jokoak, binangoa eta txotxongiloa dantzatuko dituzte. Bukatu, Arratiako jota eta porruarekin amaituko dute ikuskizuna.

Datorren barixakuan hasiko dira Maalako jaiak

Bi egunetarako egitaraua prestatu dute



Azken urteotako ohiturari jarraituz, Maalako jaiak antolatu dituzte aurten ere, Madalena Egunaren harira. Datorren barixakuan hasiko dira jaiak, eta bi egunetarako egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Barixakuan Pintxo-Maala ekitaldia egongo da, hau da, Maala inguruko tabernetan pintxoak dastatzeko aukera izango da, eta gauean ZZ blues taldeak kontzertua eskainiko du Maalako parkean. Zapatuan, berriaz, Maala-Azkarate korrika eta bizikleta igoera egingo dute 11:00etan hasita; arratsaldean xake txapelketa jokatu dute, eta gauean A santo de qué taldeak jarriko du musika giroa. Hilaren 22an, Madalena Egunean, meza nagusia ospatuko Maalako elizan. (Egitarau osoa agendan).

San Fermin txiki eguna ospatu zuten astelehenean



Atutxiamaika aisaldi taldeak antolatuta, zuri-gorritz jantzi ziren herriko kaleak astelehenean, San Fermin txiki eguna ospatzeko. Pregoia irakurri zuten lehenik udaletxe azpian, eta ondoren, San Fermi abestu zieten guztiek, zezenen aurrean babesteko eskatuz. Errosario eta San Bartolome kaleetan zehar egin zuten korrika zezenzikleten aurrean. Ondoren, eskulanak egin zituzten plazan. Dirulaguntzen jaitsearen ondorioz, aurten ez dute txorizo ogitartekorik banatu, eta umeentzako zezentxo eta poniak zein puzgarriak ez dituzte ekarri.

Batuka eta dantza latinoen erakustaldia gaur, Mendaroko frontoian

Batuka eta dantza latino erakustaldia egingo dute gaur gauean Mendaroko dantza ikasleek, Santana jaien egitarauaren barruan. 22:30ean hasiko da dantza saioa, Goñati pilotalekuan. Jarraian, diskoteka itxura hartuko du frontoiak, Dada Djaren musika saioarekin.

Kontzertua bihar, Elgoibarko musika eskolan

Harituz kultur elkarteak antolatuta, musika emanaldia eskainiko dute Euskal Herriko hainbat musika ikasleek bihar, Inazio Bereziartua musika eskolan. Udako musika ikastaroa antolatu dute Aubixan, eta beste hainbat ekitaldiren artean emango dute biharko kontzertua. 15 urte arteko hemezortzi ikasle ari dira ikastaroan parte hartzen, Gasteizko, Donostiako eta Musikeneko sei irakasleren laguntzaz. Biharko saioa 19:30ean hasiko da, musika eskola-ko auditorioan.

Dark Code taldearen kontzertua gaur, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan

Dark Code talde bergararrak kontzertua eskainiko du gaur gauean, Sinuosek antolatuta. *Raise of Death* izeneko diskoa kaleratu zuten urte hasieran, eta hori aurkeztera etorriko dira. Musika gogorra egiten dute, eta metala eta rocka uztartzen dituzte. 22:30ean hasiko da kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera hiru euro kobratuko dute.

Hip Hop Eguna egingo dute bihar Gaztetxean

Hip Hop Eguna egingo dute bihar, Lerun Txiki Berriak antolatuta. 18:00etan hasiko da jaiak, DJ Lendi eta DJ Nodaren emanaldiekin. 23:00etan Kofla, Manblak eta El fuego y la palabra ikusteko aukera egongo da. Sarrera, doan.

Hilaren 21ean jokatuko dute 10Bai Nesken Pala Txapelketako finala

Aurten hamabi bikotek hartu dute parte



Bigarren urtez antolatu du 10Bai taldeak emakumezkoen pala txapelketa, eta iaz baino bi bikote gehiagok hartu dute parte: hamabik, hain zuzen ere. Lehen fasea bukatu da dagoeneko, eta astelehenean final laurdenak jokatuko dituzte. Hilaren 18an izango dira finalaurrekoak, eta uztailearen 21ean jokatuko dute finala, 12:30ean hasita, Kalegoen plazan. Antolatzaileak “pozik” agertu dira txapelketak izan duen harrerarekin, eta partidak ikusten jende asko egon dela adierazi dute. Hor-taz, herritar guztiak gonbidatu dituzte finala ikustera joateko.

Athleticeko kadeteak entrenatuko ditu Joseba Etxeberriak

Euskal Ligan jokatuko duen kadeteen lehen taldeko entrenatzailea izango da Joseba Etxeberria datorren denboraldian. Hamabost urtez talde zuri-gorrian jokatu ostean, orain dela bi urte laga zuen taldea futbolari elgoibartarrak, eta orain, entrenatzaile lanak betetzeko itzuliko da Lezamara. Etxeberria Nike Cup txapelketan estreinatuko da entrenatzaile gisa Athleticen, Shangain (Txina). Entrenatzaile titulua atera ostean, entrenatzaile izateko prestakuntzan eman ditu azken bi urteak Etxeberriak. Getxo, Indautxu eta Deustu taldeetako behe mailetakoko taldeak entrenatu ditu urteotan, kadete mailako euskal selekzioaren hautatzailea izan aurretik. Athleticeko kapitain ohiak entrenatzaile ibilbidea hasteko “oso gogotsu” dagoela adierazi du.

Seigarren egin zuten elgoibartarrek euskal zirkuitoko xake txapelketan



Euskal zirkuitoko xake txapelketa jokatu zuten joan zen zapatuan Lerun jatetxean, eta Jose Luis Larrañaga, Ivan Fernandez eta Mikel Leon elgoibartarrek sei-garren egin zuten. Juanma Navarro, Mikel Fidalgo eta Jon Esnaola hirukotea zor-tzigarren lekuan sailkatu ziren, eta 12 urteko umeek osatutako taldea hamaika-garren lekuan. Bost minutuko partida azkarrak jokatu zituzten.

Bergara eta Agirretxe entrenatzaile, Mintxetan

CD Elgoibarko umeak entrenatuko dituzte bihar, Mintxetan, Markel Bergara eta Imanol Agirretxe Realeko jokalariek, besteak beste. 2002, 2003 eta 2004 urteetan jaiotako umeentzako entrenamendu saio berezia antolatu du CD Elgoibarrek, eta Realeko jokalariekin batera, CD Elgoibarko Asier Larrea eta Imanol Gabilondo ere arituko dira entrenatzaile lanetan. 11:00etan hasiko da entrenamendu saioa eta kirola egiteko arropa egokia eramateko eskatu diete CD Elgoibarko arduradunek parte hartuko duten umei.

Mendiko argazki ikastaroa

Morkaiko mendizale elkarteak mendiko argazki ikastaroa antolatu du irailerako. Hilaren 22an eta 23an eskainiko du tailerra Santiago Yaniz argazkilaria profesionalak. Elkarteko bazkideek 70 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 100 euro. Izena emateko azken eguna, irailak 18. Informazio gehiagorako, www.morkaiko.net.

Alex Aranburu Caja Ruraleko txirrindulariak irabazi zuen Mendaroko lasterketa, eta bera da Gipuzkoako txapelduna

113 txirrindulari abiatu ziren, eta 88k amaitu zuten proba

Javier Ezenaroren omenezko lasterketa jokatu zuten zapatuan Mendaron. Gipuzkoako Txapelketa zegoen jokoan, eta 113 txirrindulari abiatu ziren (88k bukatu zuten proba). 84 kilometroko ibilbidea prestatu zuten antolatzaileek, eta, tartean, bi aldiz igo behar zuten Kalbarioko gaina. Alex Aranburu Caja Ruraleko txirrindularia izan zen tropeleko azkarrena, 2:15:09ko denborarekin. Bigarren Limousin Cartonajes taldeko Mikel Matxinek egin zuen (2:15:35), eta Iker Azkarate Caja Ruralekoak hirugarren (2:15:39).

Taldeakako saria Caja Ruralek jaso zuen, eta Alex Aranburuk eskuratu zuen mendiko saria.



Saridunak Ander Zulaika MTEko presidentearekin eta Sonia Garcia alkatearekin.

Ehunmilak ultratrailean parte hartuko dute Edu Uribe eta Josu Mendikute elgoibartarrek

Gaur 18:00etan abiatuko dira Beasaindik Ehunmilak ultratraileko parte hartzaileak, eta tartean bi elgoibartar izango dira: Edu Uribe eta Josu Mendikute. Guztira, 193 lagunek eman dute izena, 186 gizonak eta zazpi emakumeak, eta orduko zortzi bat kilometro egingo dituztela aintzat hartuta, ondo bidean, 23:00ak aldera pasatuko dira Azkarate gainetik lehenengoak (ibilbideko 38-40. kilometroa). 168 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Elgoibartarrek ongi-etorria egingo diete parte hartzaileei Azkarate gainean, musika eta guzti (www.ehunmilak.com).

Goierriko bi handiak proban, bestalde, beste bi elgoibartarrek parte hartuko dute: Asier Arrietak eta Ignacio Perezek. Goierriko bi handiak lasterketa-koak ere gaur gauean abiatuko dira Beasaindik, 23:00ak aldera, baina hauek ez dira Elgoibartik pasatuko. Beasaindik



Asier Arrieta iaz, Azkaraten.

Larraitzerantz joko dute, eta handik Aralar mendian sartuko dira. 88 kilometro egin beharko dituzte, eta tartean Txindoki eta Aizkorri mendiak igoko dituzte. Guztira, 302 lagunek dute izena emanda: hamazazpi emakumeak eta 185 gizonak.

Wing Tsun ikastaro berezia asteburuan

Stefan Crnko irakasle austriarrak wing tsun ikastaro berezia eskainiko du asteburuan, Olaizaga kiroldegian. Gaurko saioa 18:00etan hasiko da. Bihar bi saio egingo dituzte, bata goizez (9:30-14:00) eta bestea, arratsaldez (16:00-19:00). Azken saioa domekan egingo dute, 9:30etik 14:00etara.

Futbol 7 txapelketako finalerdietan lehiatuko diren lau taldeak Elgoibarkoak dira

Futbol 7 txapelketako final laurdenak jokatu dira asteburuan, eta Elgoibarko lau taldek egin zuten aurrera: Guanedo, La Naranja Mecanizada, EGS eta Recreativo de Juerga. Guanedok 2-1 irabazi zion Roketxeri; La Naranja Mecanizadak 4-3 Coco Juniorsi; EGS taldeak 2-0 Alstom Birrari eta Recreativo de Juerga taldeak 3 eta 2ko emaitzarekin irabazi zion USK taldeari. Horrenbestez, datorren astean Eibarren jokatuko diren finalerdietan lehiatuko diren lau taldeak elgoibartarrak izango dira.

LANA

ESKAERA

- Gizonezkoa eskaintzen da tabernan zerbitzari lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak. Paperak legeztatu. ☎ **671 442 693**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Orduka. ☎ **689 436 454**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak edo baserriko lanak egiteko prest. Paperak legeztatu. ☎ **627 230 784**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **647 175 093**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketak lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ **636 419 814**
- DBH2ra arteko klase partikularrak ematen dira. Uztailan, goizez. ☎ **688 664 727**
- Gizonezkoa lan bila. Nagusiak zaintzen esperientzia. Elikagaiak eraldatzeko karneta daukat. ☎ **616 260 793**
- Emakumea lanerako prest. Sukaldari laguntzaile gisa, platerak garbitzen edota bestelako edozein garbiketara lan egingo nuke. Asteburuetan ere bai. ☎ **699 609 190**
- Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko prest. Garbiketak edo zerbitzari lanak ere egingo nituzke. Gidabaimena eta autoa ditut. ☎ **662 589 611 / 943 250 296**
- Emakume bat eskaintzen da adinekoak edo ezin-
duak zaintzeko, nahiz garbiketara lanak egiteko. ☎ **626 246 543**

- Emakume bat eskaintzen da adinekoak edo ezin-
duak zaintzeko, nahiz garbiketara lanak egiteko. ☎ **669 311 385**
- Gizona edozein lan egiteko prest. ☎ **636 029 526**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **616 260 793**
- Bikote atzeritarra lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, margoketa lanak egiteko, garbitzeko, baserriko lanetarako, jostun lanak egiteko... Edozein lan. Esperientzia eta erreferentziak ditugu. ☎ **629 144 188**
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **674 862 116**

ESKAITZA

- LH4ko ume bati klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. ☎ **628 524 420**
- Pertsona bat behar da klase partikularrak emateko, Mendaroko etxe batean. LH6 eta DBH3 mailak, 2012-2013 ikasturterako. ☎ **695 730 442**
- Mendaroko DBHko ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona bat behar du. Irailetik aurrera. Pedagogian lizentziatua izatea baloratuko da. ☎ **638 713 686**

ETXEBIZITZAK

- Gizon euskaldunak etxea hartuko luke alokairuan. Gela batekoa edo bikoa, San Roke edo Urazandi auzoetan. ☎ **676 918 922**
- Etxea alokairuan Elgoibarren, Ubitarte kalean. Bi logela (lau ohe), egongela, sukalde-jangela. Berritua. ☎ **943 742 442**

- Pisua alokagai San Frantzisko kalean. Logela bat. Berritua. ☎ **660 609 658**
- Pisua salgai Elgoibarren. 3 logela, egongela, komuna, sukalde eta ganbara. Guztiz berritua, bizitzera sartzeko prest. ☎ **688 658 813**

BESTELAKOAK

- Mintxetako hamakak gordetzeko gelatik nire aulkia hartu du norbaitek. Granate kolorekoa da eta Izaro E. jartzen du atzeko aldean. Hartu duenak, mesedez, itzuli dezala bere lekura.
- Bigarren eskuko karro-denda salgai. Bi logela: bata, 1,35 metrokoa, eta bestea, 1,20 metrokoa. Erdian jangela txiki bat du. Abanze itxia eta toldoa. Atzean, arko handi bat. Egoera onean. 350 euro. ☎ **689 781 069**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje marraduna alokairuan, Lekuederren. ☎ **943 741 715**


KINTOAK

- 1957an jaiotako mendarorrek kinto bazkaria egingo dute uztailaren 14an, Landa jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Txirristakan. Interesatuak ondorengo telefonoetan eman dezakete izena: ☎ **635 208 128 (Juanjo) / 943 031 794 (Izaskun)**



Uztailaren 13an
19:30etik aurrera
**AFARI-MERIENDA eta
AIRE LIBREKO ZINEA**
LH3-6ko bazkideentzat

Datorren astean
**GAZTELEKUKO OLINPIAR
JOKOAK**
jokatuko ditugu.
Zorte on parte hartzaile guztiei




**ERRETRATU ZAHARRAK
BEHAR DITUGU!**

BARRENen argitaratzeko
erretratu zaharrak baldin badituzu,
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behean. 943 744 112 (Ainhoa)



• Zorionak, **Iban**. Muxu handi bat zure seigarren urtebetetzean. Gurasoen eta Landeuren partez.



• Zorionak, **Uxue**, zure laugarren urtebetetzean. Jarraitu beti bezain alai. Muxu potolo bat, etxekoan eta bereziki Egoitzen partez.



• Zorionak, **Iria**, igandean 6 urte betetzen dituzulako. Muxu asko dituzulako. Muxu Marcos, Asier eta familiakoen partez.



• Zorionak, **bikote**. Dagoeneko iritsi da egun handia! Oso ondo pasa eta muxu handi bat! Koadrilakoen partez.



• Zorionak, **Jose eta Saioa**, zuen urtebetetzean, Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Paola**. Muxu pilo bat, Iratxe eta Saioaren partez.




• Zorionak, **Aritz**, domekan 9 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez.



• Datorren asteartean, uztailak 17, zure lehen urtekoa beteko duzu, **Galder!** Segi horren guapo, eta zorionak, denon partez.



• Zorionak, **amona eta Ibai**, bihar eta etzi zuen urtebetetzeak direlako. Ondo pasatu, eta muxu handi bana.



• Zorionak, **Maribu!** Vela asko gustatzen zaizunez... Mareneko lagunaren partez.



• Zorionak, **June**, neska handi! Asteazkenean 6 urte beteko dituzu. Muxu handi bat, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Elene eta Garazil** Oso ondo pasa genuen larunbatean. Muxu potolo bat, lagun guztien eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Mara eta Nahia**, etxekoan partez. Segi horrelako polit.



• Azkenean iritsi da eguna, bikote! Primeran pasa zuen ezkontza egunean. Zorionak, koadrilakoen partez.



• Zorionak, **Xabi**, gaur 11 urte egin dituzulako. Muxu bat, gurasoen eta Beñaten partez.



• Zorionak, **Lalene**, zure bosgarren urtebetetzean. Muxuak, etxekoan, eta bereziki, Haitzart eta Zugatzen partez.



• Gure txikiak, gaur urtebetet! Zorionak, **Irati**, politt hori!



• Zorionak, etxeko bihurri txikixari. Segi horren guapo, **Axi!** Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Eneko!** Ederki ospatu genuen zure seigarren urtebetetze eguna.



Mila esker, ikasleak, zuek oparitutako eztei bidai eder horregatik.

13 barixakua

Kirola

22:00 Ehunmilak ultratrail lasterketari ongi-
etorria
Azkaraten.

Musika

22:30 Dark Code taldearen kontzertua
Kultur Etxeko sotoan.

Dantza

22:30 Batuka eta dantza latinoak
Mendaroko frontoian.

Musika

00:00 DJ Dada
Mendaroko frontoian.

14 zapatua

Topaketa

17:00 Segway
Zubibaik antolatuta, Altzolako frontoian.

Dantza

18:00 Hip hop eguna
DJ Lendi, DJ Noda, Kofla, Manblak...
Elgoibarko Gaztetxean. Doan.

20 barixakua

Dantza

22:30 Nazioarteko folklore jaialdia
Haritz dantza taldeak antolatuta, Olaizaga
kiroldegian.

MAALAKO JAIK 2012

19 EGUENA

18:00 San Lazaro egoitzakoentzat
merienda

20 BARIXAKUA

10:50 Kanpai jotzea
19:00 Pintxo-Maala, jai guneko
tabernetan
22:00 ZZ Blues taldearen
kontzertua

21 ZAPATUA

11:00 Azkaratera igoera, bizikletaz
12:00 Azkaratera igoera, korrika
13:00 Sari banaketa
15:00 Xake txapelketa
22:00 A santo de qué taldearen
kontzertua

22 DOMEKA

12:30 Meza nagusia, Maalako
elizan

OKINDEGIA

15 domeka IBARRENEA

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

13 Barrenetxea
14 Ibañez
Goizez: Yudego
15 Ibañez
16 Garitaonandia
17 Etxeberria
18 Garitaonandia
19 Yudego

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Yudego
Yudego
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia
Yudego

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

AIRE LIBREKO ZINEA (KALEGOEN PLAZAN)

«Blancanieves»

13, barixakua: 22:30

«Super 8»

14, zapatua: 22:30

«Blancanieves» Zuz.: Tarsem Singh. EEBB, 2012. Iraupena:
106 min. Generoa: Abenturazkoa, fantasia, komedia. Aktoreak:
Lily Collins, Julia Roberts, Armie Hammer, Sean Bean.
Blancanieves ipuin klasikoaren bertsio berria da. Zazpi ipotx
ausartek lagunduko diote Edurnezuriri dagokion tronua eta
printzea berreskuratzen. Abentura, maitasuna, jeloskortasuna
eta traizioa dira film honen osagai nagusiak.



«Super 8» Zuz.: J.J. Abrams. EEBB, 2011. Iraupena: 114 min.
Generoa: Zientzia fikzioa. Aktoreak: Joel Courtney, Kyle Chandler,
Amanda Michalka, Elle Fanning. 1979ko udan, Ohioko herri txiki bateko
gazte talde batek zombiei buruzko film bat grabatuko du, super 8
formatuan. Horretan dihardutela, tren istripu larri bat ikusiko dute, eta
berehala konturatuko dira, ez dela istripua izan. Poliki-poliki, herriko
hainbat biztanle desagertuko dira, eta egia deskubritzen saiatuko dira.



Nafarroa enparantza z/g
Tel.: 943 741 230

Egin ezazu zure plater konbinatua!

● Entsalada mistoa	● Zainzuriak	● Piper gorriak	● Oilasko bularkia milanesa eran	14€
● Gula-entsalada epela	● Kroketak	● Piper berdeak	● Txerri txuleta villeroy eran	14€
● Gabi entsalada	● Rabak	● Perretxikoak plantxan	● Arrautza frijituak	14€
● Urdaiazpiko iberikoa	● Ahate micuit-a	● Urdaiazpikoa plantxan	● Ahate konfita	16€
● Hostorea	● Txanpiñoi nahaskia	● Sagar konpota	● Entrekota piper hautsarekin	16€
	● Atun enpanada		● Arkume txuletak	16€
			● Bakailao tortilla	16€

San Bartolome jaietako menua

Ondo pasa jaixaki!

- * Aperitiboa
- * Foie terrina arto, platano eta sagar sorbetearekin
- * Kukulua entsalada epela berberetxoekin
- * Arrautza, urdaiazpiko eta perretxiko kurruskaria
- * Erreboiloa donostiar erara
edo
- * Zapoa plantxan panadera patatekin
edo
- * Azpizuna Idiazabal gazta saltsarekin
edo
- * Ahate konfita hornigaiarekin
- * Sagar kruxpetak erragaliz izozkiarekin
- * Etxean egindako goxua karamelu izozkiarekin
- * Txokolata mousse-a gaileta kurruskariarekin
- * Kafea



TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Bazatoz bazkaltzera txarangaren kalejira
amaitu ondoren? 17:00etan, Sigmako aparkalekuan
Animatu, primeran pasako dugu-eta!

MENUA:

- Lehenengo platera: arroz-entsalada
- Bigarren platera: okela gisatua patatekin edo barazkiez betetako berenjena gainerreak
- Postrea: Gazta-tarta
- Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura

Izenematea Elgoibarko Izarran
edo Internet bidez egin behar da
(www.elgoibarkoizarra.com)
(Izena emateko azken eguna uztailaren 13a.
Izena ematean aukeratu beharko da
bigarren platera)

19 €

17 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideak



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA